

BALIO PROPOSAMENA

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Gure enpresarekin egiten duguna da, munduko leku askotan euskal-gastronomia hedatzea. Hasteko, badaude pertsona asko Euskal Herritiki kanpo bizi direnak eta Euskal produktuak jateko aukera ez dutenak, atzerrian baidaude. Aukera honekin, atzerrian bizi diren Euskaldunak bere etxeko produktuak goxatzeko aukera izango dute.

Bestalde, Euskaldunak garenok eta Euskal Herrian bizi garenok bidaiatzen dugunean ere atzerrian Euskaldun platerrak probatzea dibertigarria izan zitekeela uste dugu, nahiz eta guk geu produktu horiek egunero probatzea, hori atzerrian egitea interesgarria izan ahal zitekeela uste dugu.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Argi eta garbi bereizten gaituena esentzia da, azken finean, Euskal esentzia hori Euskal Herritik kanpo aurkitzea oso zaila da eta aukera honekin ziur gaude bezeroa etxetik gertuago sentituko dela, baita ere atzerrira joaten diren Euskal turistak. Gainera, bezeroak eskainiko dugun janaria etxera eramateko aukera izango dute, haien etxean lasai-lasai jan nahi badute, eta, baita ere, gaur oso modan dagoen ezaugarria gehituko dugu, “ Food Delivery”, hau da, janaria guk geu bezeroen etxera eramateko aukera eskainiko dugu, kontsumitzaileak janaria hartzeko denbora ez badu edota beste kontuak egin behar baditu.